

ALBEIZ / ALBÉNIZ

– ARABA / ÁLAVA –

Asparrena udalerraren barruan dago Albeiz, lursail irekian, Umandia, Albeiz, Olano eta Baio mendiek inguratuta, Arabako Lautada eta Nafarroa lotzen dituen korridorearen erdigunean. Herria bera, 585 metroko altueran, Gasteiztik 30 bat kilometrora dago. Hiriburutik irtenez gero, Elorriagako Atetik dago errazen, N-104 errepidea hartzeko, eta ondoren, N-I errepidean zehar, Araia/Durruma aldera iritsi arte egin behar da aurrera. Handik A-3020 bideari ekin, eta azken metroak, A-3012 bidean eginik, Albeiz topatuko dugu.

Albeizko etxeetatik hurbil, garai batean Astorgatik Bordelera zihoan galtzada erromatarra omen zegoen. Batzuek diotenez, Albeizen edo, handik oso hurbil, gaur egun hutsik dagoen Albizu herrian zegoen Alba jauregi erromatarra, Ekialdeko Lautadaren erromanizazio gune nagusia. Hainbeste dira inguruan aurkitutako aztarna arkeologikoak, ezagun dute lekuok erromatar garaian izan zuten garrantzia.

1025. urterako, Albeiz *Albiniz* forman dago jasota Donemiliagako Botoaren dokumentuan, *VII alfozes* deritzon atalaren barruan. Hark esanda, *Hamezaba*, *Heguiraz*, *Sancti Romani* eta *Hurabagin* ondoko herrixkekin batera, bildots bat eman behar zuten urtero zerga gisa. 1062. eta 1071. urteetan, Albeiz abizen toponimiko gisa ageri da dokumentuetan. 1257. urtean, Aznar gotzainaren gutunean, Egilazko Artzapezpikuaren barrutian dator jasota. Gil lizentziatuak dio, 1556an, bost apaizek dihardute la parrokiari; hiruk anoa bete daukate, eta bik, anoa erdia. Bi baseliza zeuden, eta San Bartolomerena zen bietan ospetsuena.

Albéniz es un pueblo que pertenece al municipio de Asparrena y se sitúa en terreno abierto, rodeado por los montes Umandia, Albéniz, Olano y Baio, ocupando el sector central del corredor que une la Llanada alavesa con Navarra. El pueblo, situado a una altitud de 585 m, dista poco más de 30 km de Vitoria-Gasteiz. Desde la capital alavesa el acceso más cómodo se inicia en el Portal de Elorriaga para enlazar con la carretera N-104 y continuar por la N-I hasta la salida Araia / San Román. Ahí se toma la A-3020 recorriendo los últimos metros, antes de llegar a Albéniz, por la A-3012.

Próximo a su caserío discurría el trazado de la calzada romana de Astorga a Burdeos. Algunos autores sitúan en Albéniz o en Albizu, despoblado situado a poca distancia, la importante mansión romana de Alba, núcleo principal de romanización en la Llanada Oriental. Los innumerables restos arqueológicos hallados en el entorno, hacen patente la importancia de estos lugares en época romana.

Ya hacia 1025 aparece citado Albéniz, como *Albiniz*, en el documento del Voto de San Millán, dentro del *VII alfozes*. Es, junto con las aldeas limítrofes de *Hamezaba*, *Heguiraz*, *Sancti Romani* y *Hurabagin*, tributadora mancomunadamente de un carnero anual. En 1062 y 1071 Albéniz aparece como apellido toponímico en varios documentos. En 1257, en la carta del obispo Aznar, se incluía dentro del Arciprestazgo de Eguilaz. El licenciado Gil dice, en 1556, que servían a la parroquia cinco clérigos, tres de ración entera y dos de media. Contaba con dos ermitas, siendo muy popular la de San Bartolomé.

San Joan eliza / Iglesia de San Juan

ALBEIZKO PARROKIA-eliza liraina San Joan Bataiatzailea goratzeko da. Herriaren gorengo partean dago, eta haren inguruan dira etxeak. XV. mendeko azken urteetan edo XVI. eneko hasieran eraiki zuten eliza, bertan zegoen erromaniko bat handiagotuta. Araban, beste hainbaten ere egin izan zuten gauza bera. Mendebaldeko

EL ESBELTO TEMPLO parroquial de Albéniz está dedicado a San Juan Bautista. Emplazado en la cota más alta del pueblo, en torno a él se concentra el caserío del lugar. La iglesia se construyó en los años finales del siglo XV o a comienzos del XVI, ampliando otra románica, como ocurre en tantas otras iglesias alavesas. En el hastial



Maskaroia

Mascarón

hastialean, altuera batean eta hegoaldeko hormarekin er-tzean ia-ia, harburu bat dago, maskaroi eta guzti. Zalantza barik, lehenengo eliza erromanikoaren aztarna da, denbo-ra isilean etengabe iragan den lekuko.

Testua eta argazkia: MPGH

de poniente, a buena altura, y prácticamente en la esquina con el muro sur, se encuentra un canecillo con un mascarón, resto sin duda de la primera iglesia románica y mudo testimonio del implacable paso del tiempo.

Texto y foto: MPGH

Bibliografía / Bibliografía

LÓPEZ DE GUEREÑU, G., 1962, p. 282; PORTILLA VITORIA, M. J. *et alii*, 1982, pp. 260-261; PORTILLA VITORIA, M. J., 1991, pp. 62-63.